

INAUTERI PROGRAMAZIOA

Otsailak 2, KANDELERIO

19:00etan: Andra Maria eliza aurrean hasi eta kalez kale kandelerio kantua abesten, Elai Alai dantza taldea eta Segundo Olaeta musika eskola.

Otsailak 16, TXITXIBURDUNTZI EGUNA

17:00etan: Txitxiburduntzi eta umeentzako jolasak Lumoko plazan.

EGUEN ZURI (OSTEGUN GIZEN)

16:45ean: Gozoki bidea (Pasealekuan hasita)

OSTIRAL MEHEA

Aurtengo gaia: «20ko hamarkadako urte zoriontsuak»

20:00etan: Adin guztientzako Inauterietako kalejira Ibilbidea. Foru plazan hasi eta Juan Calzadan zehar Agarre auzoraino.

23:00-00:00: Juan Calzada eta Industria kaleetako tabernetan «Happy hour» mozorrotuentzat. Apainketa deigarriena erakutsi duten tabernei SARIAK Urdaibaiko ostatu batean gaua, orogarriak, kultura bonoak eta Gernika-Lumoko merkataritzan erabiltzeko bonoak.

INAUTERI ZAPATUA

12:30-15:00: Urdaibai Kantagunea kalez kale

17:30ean: Ume eta gazteentzako mozorro jaialdia (Merkatu plazan)

19:00etan: «Marroen Inauteria» (Pasealekuan hasita)

20:00etan: Txokolatada eta tostada banaketa (Merkatu plazan)

INAUTERI DOMEKA

11:00etan: Busturialdeko gaiteroen diana

12:30ean: Irrintzi erakustaldia Berbalagunen eskutik (Foru Plazan)

12:45ean: Marroen aurrekua, Marroen Inauterien erakustaldia eta oilar jokoaren antzezpina (Foru plazan). Ostean, tostada banaketa (Foru plazan) eta Elai Alai dantzariak kalez kale.

13:00etan: Busturialdeko gaiteroen kalejira

17:30-20:30 Lehorreko kukaina, ume eta gazteentzako parkea (Merkatu plazan)

INAUTERI ASTELEHENA

17:30-20:30: Ume eta gazteentzako parkea (Merkatu plazan)

INAUTERI MARTITZENA

17:30-20:30: Ume eta gazteentzako parkea (Merkatu plazan)

GERNIKAKO INAUTERIA

Inauterien zalaparta badoa apurka-apurka, eta ohiko bizimodura bueltatzen garen bitartean, Bizkaiko Busturialdera joan zaigu halako batean pentsamendua. Eskualdearen bihotzean, Gernikan, aratusteak ospatu dituzte ohi bezala. Aipatzekoa da, eta hori ez da hain ohikoa, garai bateko mozorroa berreskuratu zutela iaz, eta aurten ere hantxe izan da. Eskertzekoa, globalizazio garaiotan.

Gernikako inauterietan hainbat egunez egiten da ospakizuna. Garrantzitsuena, baina, domeka izaten da. Aurten San Blas eguna, hilargi egutegiaren gutziengatik. Txomin Unzaluk gogorarazi digunez, antzina martitzenean egiten ziren gaur egun domekan egiten direnak. Tradizioak tradizio, asteartea lan eguna da mundu moderno honetan, eta ezin horri ihes egin. Igande egurdian egin zuten beraz ospakizun handia, Foru Plazan. Ohi denez, soka-dantza antzeztu zuten Elai Alai taldekoek. Aurten ordea –iaz bezala- marroak arduratu dira horretaz. Unzaluk azaldu digunez, “**Marroa** Gernikako mozorro klasikoa da, baina herrian inauteria berreskuratzen hasi zenean, Lantzekoa hartu zen eredu; jendea **Txatxuen** mozorroa erabiltzen hasi eta marroa baztertuta geratu zen”. Norbaitek pentsatu zuen, ordea, berreskuratu egin behar zela, eta iaz gauzatu zen asmo hori. Hala, igande eguerdiko **soka-dantza** marroek dantzatu zuten. Izan ere, hala zeukan izena dantza horrek lehenagotik ere: **marroen aurrekua** edo **soka-dantza**.

Marroaren jantzia koloretsua da, arlekinatua. Aurpegia sudur handidun kareta batez estaltzen du. "Biak, txatxoa eta marroa, elkarrekin egon daitezela da asmoa", Marroa edo **Marraue** hiriko mozorroa da, kaletarra. Txatxoa berriz, larrekoa, baserritarra. Bata gernikarra, bestea Lumokoa. Aurrerantzean, kapelu konikoak eta sudur handiak bizikidetzan izango ditugu Gernikan. Soka-dantza, hori bai, marroari dagokion ohorea da.

Gernika-Lumo, el acontecimiento pasa por la celebración de los *Aratuzteak*, en los que se realizan la "cucaña" horizontal y el tradicional ***Oilar Jokua*** o **Juego del Gallo**. Son los niños los verdaderos participantes que, con ojos vendados y espada en mano, tratan a ciegas de tocar la cabeza del ave que se encuentra enterrado en la plaza. No todos ganan el premio que consiste en el mismo gallo. A continuación, el *Aurresku*, variante de las *Soka Dantzak*, ejecutado por los disfrazados enmascarados: los ***marrauek*** o ***marroak***.

KANDELERIO EGUNA

El próximo 2 de febrero a las 19:30 Gernika-Lumo acogerá la festividad 'Kandelerio eguna' frente a la iglesia de Andra Mari.

Este día tiene su origen en el encendido de velas bendecidas en las casas cada vez que se avecinaba tormenta, ya que se creía que producía un poder especial contra las mismas. Asimismo, en este día la Iglesia celebra la Purificación de la Virgen.

En algunas localidad esta festividad marcaba en inicio de los carnavales, pues a partir de ese momento se permitía disfrazarse y hacer peticiones.

La tradición durante 'Kandelerio eguna' reside en que los niños/as pequeños/as salgan a la calle en grupos, con las velas en la mano, para cantar la canción 'kandelerio, lerió'. Así, cantando las coplas de esta festividad, discurren por cada rincón del municipio, acompañados de bandas de txistularis y acordeonistas.

Actividad organizada por Elai-Alai Dantzari Taldea y SOME (Segundo Olaeta Musika Eskola)